

# Karkara

*karkara.eus*

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria · 2018ko abuztuaren 31 · 397. zenbakia



## Diseinua eta joskintza bokazio

Amonaren ofizioari segida emanez, Goiuri Unanue bidea egiten ari da moda munduan, tradizioa eta joera berritzaileak dotore uztartuz.



**zerbitzu tekniko**  
24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta duxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekoratzailea
- Zoru erradiazatzea

**fontana**  
iturgintza

Plaza Endaia n°1, 20810 - Orio  
fontana-ju@hotmail.es  
661 262 828

**Iraileko ESKAINTZA**  
altzari eta osagarrietan

**ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK**

[www.fontaneria-fontana.com](http://www.fontaneria-fontana.com)

**IZARRA ELEKTROGAILUAK**

**ESKOLARA BUELTA**

7€ USB 16 GB

DESDE 7€

LENOVO 500 GB 299€

TIEN 21

39€ KAPSULAK UPATU

TV PHILIPS 32" 218€

ROBORA 249€

BALAY GARRIGAILUA 280€

TEKA LABIA 379€

Eusko Gudarai, 44 · Telf. 943 85 38 81 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

**Gale Bask S.L.**

BERRIKUNTZAK HANDI ETA TXIKIAK

- Lurrak-komunak-sukaldeak-terrazak
- Pintura lanak
- Igeltzeritza
- Iturgintza
- Elektrizitatea

Kale Nagusia, 2 - behea (20810 Orio)  
Telf./Fax: 943 134 717  
Mugikorrak: 638 610 343 / 638 610 349  
galebask@hotmail.com

**Sagasti LEIHOAK**

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Arrantza Kalea, 65  
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitazteko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

[www.sagastileihoak.com](http://www.sagastileihoak.com)

**XS** arkitektura

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

borja aguirresarobe lopetegui 6 3 5 7 3 1 7 2 2  
henko-barra11, behea 9 4 3 1 3 4 3 5 8  
20800 zarautz xs@xsarkitektura.com

[www.xsarkitektura.com](http://www.xsarkitektura.com)

**ZINKU ERAIKUNTZAK**

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuen
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe*

Ander Zinkunegi  
667 740 279

**garay manufacture**

**SUKALDEAK**

[www.garay.eu](http://www.garay.eu)

1989tik sukalde altzarrietan lanean

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU  
Olabidea aldea 1  
(Errotaberri industrialdea)  
20.800 Zarautz

**943 13 31 09**

Carpinteria

**Joseba**  
Aroztegia

687 683 427

josebaarotza@gmail.com

ATEAK  
ZOKALOK  
ARMAIRUAK NEURRIRA  
LEIHOAK  
ESKAILERAK  
ARROZTEGIA OROKORREAN



397

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27karkara@karkara.com  
www.karkara.eus**Editorea**Karkara taldea  
kultur elkarte**Erredaktore burua**

Ainara Lasa

**Erredakzio taldea**Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Olatz Artola  
Iñigo Exposito  
Aroa Fernandez  
Iñigo Gaiton  
Jon Garate  
Miriam Garcia  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**Pat Cowie  
Qasim Hussain  
Iñaki Iturain**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzaileak**Endika Ruiz (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzieren erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

# TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Asier Lizarralderi jarri dio puntua Aitor Arregik: *Errepidean ba ote dugu guztiontzat tokia*. Hurrengoari ere jarri dio bertsotarako gaia.

## PUNTUA JARRITA

**ASIER LIZARRALDE** (DOINUA: ANTTON ETA MARIA)**1****Errepidean ba ote dugu guztiontzat tokia?**

Batzuetan zaila izaten da guztion konbibentzia: bozina hotsak, keinu zakarrak... eguneroko jakia. Elkarrekin bizi behar eta elkar ezin ikusia.

**2**

Giza taldeak, giza legeak egiten gaituzte gizaki. Eskubideak, betebeharrak, aldarrikatuz ozenki; errepidean dagon legea baten batek ba al daki? txirindulari, autogidari, errespetatu jatorki.



Orioko Aita Lertxundi kalea, autoz gainezka. MAIALEN SS.

**Hurrengo bertsolaria:**

Borja Agirresarobe

**Puntua:**

Erremonteak beti izan du Oriorekin lotura.

**EUSKO JAURLARITZA****GOBIERNO VASCO**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



## 6 euro

6€ behar ditugu Patxik eta Gregoriorok egunero egunkaria erosi ahal izateko. 6€ behar ditugu espetxeko supermerkatuan oinarritzko erosketak egin ditzaten.

6€ Oriotik Picasenteko espetxera dauden ia 1000 kilometroak egiteko. 6€ behar ditugu joan eta etortzeko. 6€ bideko gastuetarako. 6€ Oriotik Curtiseko espetxera dauden 1300 kilometroei aurre egiteko.

6€ abokatuen gastuak ordaintzeko. 6€ gutun honetan idazteak ere lotsa ematen duen hainbat gauza ordaintzeko, erosteko.

Garai berriak dira Euskal Herriarentzat baina preso eta senideen eguneroko sufrimenduak betikoa izaten jarraitzen du. Zaharrak berri. Estutasun horretan laguntzeko, badituzu 6€?

Hilero kontu korrante honetan 6€ ordaintzeko prest bazaude asko estimatuko dizugu. Estimatu ditzute. Laguntzeko modu polita da.

Laboral Kutxa

IBAN ES 83 -

30350182191820019100.

• **Gregorio, Patxi, Olatz eta Xuaren lagunak**

## Indarrak batu, Dravet gaitzari aurre egiteko

Pasa den uztailean, Orioko kirol portuko elkarte gastronomikoan herritar dezente bildu ginen, Dravet gaitza ikertzeko salmentan jartzen ari diren orratz-panpinak eskuz egiteko.

Norbaitek elaborazioan, salmentan edo erosketan kolaboratu nahiko balu, dei dezala 619 80 81 86 telefono zenbakira (Rakel). Oraingoan, Orioko arraunlarien panpinak salgai daude Bordatxo Tabernan, Niko Tabernan, Orio Arraun Elkartearen dendan, eta Lasarteko Patxi Larrañaga harategian. • **Rakel Delgado.**

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-rekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

### JAIOTAKOAK

- Andrea Indo Arriola, ekainaren 14an.
- Peru Murgiondo Otazua, uztailaren 7an.
- Uxue Arrillaga Oteiza, uztailaren 10ean.
- Arene Bordagaray Zuriarrain, uztailaren 27an.

### HILDAKOAK

- Patxi Oliden Etkezarrera, Orion, ekainaren 22an., 62 urte.
- Laudi Gz de Txabarri Urbietara, Orion, uztailaren 1ean, 89 urte.
- Jose Antonio Atorrasagasti Murua, Orion, uztailaren 5ean, 69 urte.
- Maria Iruretagoiena Manzisidor, Aian, uztailaren 12an, 74 urte.
- Rafael Gz de Txabarri Urbietara, Orion, abuztuaren 2an, 88 urte.
- Jose Maria Etxeberria Zubiria, Orion, abuztuaren 5ean, 81 urte.
- Consuelo Frutos Barrero, Orion, abuztuaren 26an, 88 urte.

### EZKONDUTAKOAK

- Eneko Perez Iturbe eta Jennifer Herivas Martin, maiatzaren 15ean.
- Maria Begoña Gandarias Lopez-Baigorri eta Alberto Esteban Velazquez, maiatzaren 26an.
- Adil Qouba eta Sonia Sanchez Patiño, ekainaren 5ean.

- Miren Jasone Albizu Elizalde eta Eladio Zubizarreta Jimenez, ekainaren 15ean.
- Unai Buenetxea Lazkano eta Ainara Diaz Uberuaga, ekainaren 16an.
- Miren Begoña Egiluz Torrealde eta Josu Mirena Garamendi Alegria, ekainaren 16an.
- Adrian Garmendia Muñoz eta Nahikari Amiano Eraso, ekainaren 21ean.
- Dora Zufiria Imaz eta Juan Jose Zubizarreta Jimenez, ekainaren 23an.
- Joseba Agosti Agirrezabala Irizar eta Maria Elena Nuñez Fonseca, uztailaren 7an.
- Laida Portalo eta Ekaitz Azkue Cardoso, uztailaren 14an.
- Andoni Fernandez Calvo eta Leire Soraluze Arana, abuztuaren 20an.
- Miren Olatz Mugi eta Juan Angel Garmendia Echeverria, abuztuaren 21a.
- Elena Saiz Aizpurua eta Mafalda Raquel Diaz Dos Santos, abuztuaren 25ean.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

**943 83 15 27**





EGIN  
KARKARA  
LAGUNTZAILE!

EGIN ZAZU LAGUNTZAILE  
EDO  
OPARITU  
KARKARA



DATU PERTSONALAK...

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN AGIRIA

HELBIDEA



EPOSTA

KONTU ZENBAKIA

ORDAINKETA KOPURUA

GUTXIENEKOA 36€

Moztu orrialde hau eta sartu kultur etxeko harreran dagoen kaxan; edo bidali **KARKARA**ko erredakziora (Eusko Gudari, 26 · 20810 Orio)





9.500 lagun inguru juntatu zituen Los 40 jaialdiak. KARKARA



9 pisuko giza dorrea egin zuten Orioko plazan "castellersek". KARKARA



Orio AEko nesken trainerua denboraldi ona egiten ari da. EGIGUREN

# Euritan dantzan

“Eta traineru horiak animatzeaz gain, guk Begoña Zalduaren alde egingo dugu apustu!”

**B**i hilabete pasa dira azken papereko zenbakia atera genuenetik. *Ñio*, bizi-bizi joan da udaren trontzoa! Aurten, behintzat, ezin kezatuko gara eguraldiaz, ezta? Bero egin du, itsasoko uraren temperatura aspaldiko altuena izatera iritsi da, *domingeroez* gain hegaluzeez ere hondartzetara gerturatzeko saiakera egin dutela dirudi, eta *Los 40 Summer Live* jaialdian... Festa lehertu zen! Hondartzako berdegunean juntatutako 9.500 lagunak, euritan dantzan jardutetik kolpetik korrika egitera pasa ziren, hura saltsa! Hondartzako jaialdian baino gutxiago, baina Aiako festetan ere jendetza ibili da, eta Udalaren iritziz, arrakastatsuak izan dira aurtengo jaiak. Bejondeizuela!

Parranda kontuak laga eta kirolera salto eginez, uztaila erdialdean Sara Iparragirre Europako saskibaloitxapeldun izan zela ekarri nahi dugu gogora. Herriko beste eliteko kirolari batek ere eman zigun notizia: Idoia Etxeberriak harria jasotzeari lagako dio udazken honetan. Aldizkariarekin oparitutako posterrarekin gure omenalditxoak egin nahi izan diogu, Euskal Herriak eman duen emakumezko harri-jasotzaile onenari!

Ah! Etazin ahaztu *castellersek* plazak egindako errekorra. Bederatzi pisuko giza dorrea osatuta, aho bete hortz laga zuten plazan bildutako jendetza! Harrituta, halaxe ikusi genuen *Saltillo* ontziak herrian egindako sarrera... Katalanek ez bezala, hauek bete-betea jo zuten goia!

Beno, eta Donostiara begira zer? Aldizkaria argitaratzerako, pasata egongo da ostegun madarikatua. KARKARAko arranplatik, zorte on neska-mutilak! Eta txalupa horiak animatzeaz gain, guk Begoña Zalduaren alde apustu! Arima indartu digu 80 urterekin arraun surfean duen abilezia ikusteak!

# Zer iruditu zitzazun *Los 40 Summer Live* jaialdia?



“Hondartzak ekin-tza asko egiteko aukera ematen du”

Jendetza etorri zen kontzertuetara, ez genuen uste hainbeste lagun etorriko zirenik. Gaztetxo mordoxka etorri zen, eta tabernan makina bat ogitarteko egin genituen.

Egia da eguraldiak ez zuela batere lagundu. Une batean, *tsunami* moduko batek lehertuko zuela zirudien. Goizeko 02:00etan haizeak guk Gailernarekin batera ipinitako karpa ia eraman zuen.

Uste dut Orioko hondartzak ekimen desberdinak egiteko aukerak eskaintzen dituela. Nik ordea, berdegunean antolatu ordez, hondartzan bertan egingo nituzke, Jazzaldian bezala.

**Ainoa Irazusta**



“Jaialdiak arrakasta izan du beste lekuetan”

Lastima izan zen gertatu zena. Egin zuen euriteak dena zaildu zuen. Jaialdi hau beste zenbait hiritan ere egin udan zehar, eta sekulako arrakasta izan du.

Abeslari ezagunak genituen kartelean, eta kontzertuek oihartzuna izan zuten Gipuzkoako gaztediaren artean. ‘40 Principales’ irrati katea nerabe askok entzuten dute eta Oriora gerturatu ziren horietako asko.

Kontzertuek iraun bitartean ederki pasa zuten, eta Orioko hondartza lekua bikaina da halakoak antolatze-ko. Eguraldiak dena izorratu zuen, eta ezin izan genuen jaialdiarekin jarraitu.

**Olga Grande**



“Ez zen inolako antolakuntzarik egon”

Azken urteetan bizi izan dudan ekitaldi surrealisten antolakuntza desastrea; egia esan, ez zegoen antolakuntzarik. Eurria zegoen emanda, eta antolatzaileek bazekiten halako kartelarekin, milaka gaztetxo joango zirela, ez?

40 minutuz kontzertuak bertan behera geratu ziren, eta tarte horretan inolako azalpenik ez ziguten eman. Publiko guztia harritu eta zur zegoen, zer egin jakin gabe.

Ez zen inolako segurtasun neurririk izan, hiru udaltzain ikusi nituen soilik, zer egin eta desastre hori guztia nola kudeatu ez zekitela.

**Jorge Napal**

**Sinergia** | fisioterapia & ikerkuntza

· Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia esteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioak.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-a, pilates, abdominaleto gimnasia hipopresioba (GAH), REDCORD.



943 13 05 77  
685 71 85 95

Ibañ Ondo 1, Bajo - Orto  
sinergiafisioterapia.com



# Hegaluzea barra-barra

Ohi baino ia bi hilabete lehenago bukatu da hegaluzearen kanpaina. Azken 30 urteetan, arrantza debekua ez da aurten bezain garaiz sekula jarri. Alde batetik, seinale ona da, hegaluzea badagoelako, baina alde txarra ere badu; arrantzale askok lehorrean egon beharko dutelako 2019ko otsaila bitartean.

## KARKARA

Hegaluzea harrapatzeko kanpaina urria erdialdean amaitu ohi da, baina aurten, abuztua bukatzeko astebete luze falta zela ezarri zuten arrantzarako debekua.

*Kanpaina hasieratik, baporeek arrain asko topatu dute kostaldetik gertu, eta oparotasun hori mantendu egin da gerora ere. Beste urteetan gertatu izan da kanpainan zehar bolada onen bat tokatzea, baina aurten ugaritze hori luze mantendu da, adierazi du Haritz Arrizabalaga Azti Tecnaliako Tunidoen arloko ikertzaileak. International Commission for the Conservation of Atlantic Tunas elkartearen, hegaluzearen inguruan lan egiten duen taldeko partaidea ere bada. Bere hitzetan, arrantza kuoten inguruko kudeaketa neurriak aholku zientifikoen arabekoak dira. Aurten, 15.000 tonakoa izan da zifra. Kuota errespetatzea garrantzitsua da hegaluze kopurua produkzio maila altuenean mantentzeko. Helburu horrekin jartzen da muga, dio ikerlari oriotarrak.*

Hala ere, azken urteetan harrapatu den kilo kopurua kuotatik behera ibili izan da, eta urteren batean kopuru hori pasatzea jasangarria izango litzatekeela uste du Haritzek.

Aurtengo udan izandako eguraldiaren ondorioz, itsasoko urak aspaldiko tenperaturarik altuena du. *Aurreko urteetan ere izan dira tenperatura altuak, eta horrek ez du eragin izan hegaluzearen arrantzan. Nire ustez, klima aldaketarena ez da faktore adierazgarriena. Hori bai, aurreantzean tenperaturek gorantz jarraitzen badute, litekeena da kostaldean ur beroetako espezie batzuk ugaritzea.*

### Ontzi pelagikoen deskargak

Aurtengo kanpainan eztabaida piztu du Eusko Jaur-laritzak arrantzontzi pelagikoen deskargak ez oztopatu izanak. Haritzen iritziz *hemengo ontziek hegaluzea arrantzatzeko erabiltzen duten teknika, amuarekin piezak banan bana harrapatuz, jasangarriena da ekosistemarentzat. Ikuspuntu sozialetik begiratuta ere bere esangura du;*



*arrantzarako teknika hori erabiltzea tradizioa, ohitura, bizimodu baten isla da.*

Arrantza pelagikoa, aldiz, ez da hain errespetuzkoa, eta sozialki kutsu enpresarialagoa du. Azken asteetan sortu den eztabaidari erreferentzia eginez, Haritzen arabera *kontsumitzaileak du giltza, norberak erabaki dezake zein hegaluze kontsumitu nahi duen, amuarekin harrapatutakoa edo bestea.*

### Kanpaina errentagarria

Gipuzkoako eta Bizkaiako kofradiek esan dutenez, aurtengo kanpaina errentagarria izan da. Hegaluzea kostaldetik gertu harrapatzeari esker, ontziek milaka euro aurreztu dituzte erregaian, eta hegaluze kiloak 3,5 eta 4 euro artean ordaindu diete lonjetan.

Hala ere, Miren Garmendia Gipuzkoako Kofradietako idazkariak azaldu duenez, orain portuan geratu behar izateak amorrua ematen die arrantzaleei. Kuota handiago eskatzen dute, zientzialariek hegaluzearen egoera ona zela baieztatu dutelako. Bere hitzetan, arazoak dardenean kuotak erraz jaisten dira, baina igotzea asko kostatzen zaie.



ARITZ MUTIOZABAL / UROLA KOSTAKO HITZA

# “43 urtetan ez dut horrelakorik bizi izan itsasoan”

## Bittor Dorronsoro

San Antonio ontziko patroia

Bittor Dorronsoro San Antonio ontziko patroia da. 43 urte daramatza itsasoan, arrantzale lanetan. Urtero, San Pedro jaien ondoren, hegaluzea arrantzatzera itsasorazten dira. Normalean, urria amaiera edo azaroa hasierara arte irauten du kanpainak. Aurten, ordea, hilabete eta erdi eskas eman dute arrain hori arrantzatzen. *Inoiz ez dugu horren denbora gutxian horrenbeste hegaluze arrantzatu; epe motzera ona da, baina orain zer egingo dugu azarora arte?* azaldu du kezkatuta.

**Denboraldi hau historikoa izan dela esan genezake, inoiz baino hegaluze gehiago aurkitu baituzue itsasoan.**

Bai, hala da. Nik 43 urte daramatzat arrantzale, eta inoiz ez dut ikusi horren denbora gutxian hainbeste hegaluze.

**Noiz irten zineten itsasora; eta itzuli?**

Sanpedroak pasata ateratzen gara hegaluze bila, eta normalean azaroa hasierara arte irauten du arrantzak. Oraingoan, ordea, abuztuaren 23rako etxean geunden.



Ezin baitugu gehiago arrantzatu, eta lehorreratzeko agindua jaso genuen.

**Kontrolak zorrotzak al dira?**

Gaur egun oso zorrotzak dira. Nik, patroia gisa, egunero Espainiako Gobernuari txosten bat bidali behar diot, zenbat arrantzatu dugun eta beste zenbait datu emanaz. Europar Batasunak muga zorrotzak jarri ditu azken urteetan, batez ere gure kostalde inguruan. Horrek kalte handia egin digu. Isunak sekulakoak dira, beraz, ezin dugu arriskatu.

**Era orain, azaroa iritsi arte, zer?**

Gero sardina denboraldia dator, baina bitartean ezin dugu askorik egin. Arrantzaleontzat, dendariantzat eta oro har, kontsumitzailearentzat kaltegarria da hau. Egocera zaila da. **A.LASA**



**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*



Autobus litera eta  
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

**ELEKTRIZITATEA**  
*Ander Exposito*  
 943 831 774  
 600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com



**EKILORE GARBIKETAK**



626417841  
 ekilore@outlook.es

**Auto Azkue**



Tf: 943 130 438

**Auto Azkue**

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**



**24 ORDUKO ZERBITZUA**

Javier Iglesias Fernández  
 637 723 308  
 iglesiascerraajeros@yahoo.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

**LUXARBE**  
*igeltseritza*

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**Imanol Illarramendi**  
 Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
 arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

**MENDIZABAL AROZTEGIA**  
*Neurriko armairuak eta egurlanak*

943 831 175 Altxerri bidea  
 645 708 491 Beti-Alai etxea  
 mendi@aroztgi.net 20810 Aia-Orio

**TXUKUN LORAZANTZA, S.L.**



Lorezaintza  
 Mendiko lanak  
 Indusketak  
 Itxiturak

Tel. 660 332 756 · 679 428 851

txukunlorazantza@hotmail.com



**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**PERTSIANAK**  
 AKO MAZ



Aluminio, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**TAILER MEKANIKOA AUTO LAN**



Pelotari 5, Orio  
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

## 'Aid El Kebir'



Qasim Hussain

**Sakrifizioaren festa ospatu genuen abuztuaren 21an. Musulmanontzat egun berezia da eta herritarrekin partekatze-ko aukera izan dugu.**

**P**asa den abuztuaren 21an *Aid El Kebir* edo Sakrifizioaren Festa, musulmanen jai nagusia ospatu genuen Orion, senegaldar komunitateak antolatuta. Orioko herriko plazan egin genuen ospakizuna, eguerdi partean hasi eta iluntzera bitartean.

Goizaldean errezoan ibili ginen komunitate musulmana osatzen dugunok; ondoren, familiarekin elkartu eta arkume jana egin genuen.

Guretzat zuen Gabon Eguna bezalakoa da pasa den abuztuaren ospatu genuena. Urteko ospakizun garrantzitsuenetarikoa da guretzat; familiarekin juntatu, eta festaz gozaten dugu denok batera. Orain dela 10 urte etorri nintzen Oriora bizitzera eta urtetik urtera komunitatea zabalduz joan da.

Arkumearen sakrifikatzearen edo hiltzearen garrantzia nabarmendu nahiko nuke. Arkumea jan ohi dugu *Aid El Kebir* egunean. Hiru zatitan moztzen dugu; zati bat norberarentzat izaten da, bestea, familia artean banatzen da, eta hirugarrena, arrazoi bat edo beste tarteko, egun horretan arkumea jateko aukerarik ez duten musulmanekin partekatzen dugu.

Eguerdi aldera, plazan hainbat ekintza egin genituen joan den hilaren 21an. Iluntzera arte bertan egon ginen eta herritar dezente animatu ziren jaiaren parte hartzerara.

Orietarrek gure kultura gertutik ezagutzeko aukera izan zuten; hori da gure helburua: festa elkarbizitzaren jaia izatea gustatuko litzaiguke. Familia giroan egoteko eguna izan arren, aiarrak eta oriotarrak ospakizun honen parte izatea nahi dugu aurrerantzean.



Aroa Fernandez

## Bekaduna

**D**ei batekin hasi nuen udako abentura hau. Aste batzuk lehenago, Karkarako kazetari bat hurbildu zen Aiara gazteleku berriaren inguruan galdezka, eta zorionez, elkarrizketatuen artean izatea suertatu zitzaidan. Hala, oporretatik bueltan nentorrela, zenbaki ezezagun bat azaldu zitzaidan mugikorreko pantailan. **KARKARA**ko kazetaria zen.

Praktiketarako ikus-entzunezko ikasle baten bila zebiltzala esan eta ea animatzen nintzen galdetu zidan. Ikus-entzunezko praktikak baino gehiago, kazetaritzakoak izan direla aitortu behar dut, baina ez pentsa txarrerako izan denik. Alderantziz: nire ibilbide honetan onuragarri izango diren hainbat gauza ikasi ditut: laurogeigarren hamarkada amaieran hasitako **KARKARA**ko argazki artxibo erraldoian, aurpegi ezagunetz betetako altxorrek aurkitu ditut, asteartero arraunlari berri baten bizitza ezagutzeko aukera izan dut, eta herriko aldizkarikoa naizela esan dudanetan, leku mordo batean sartu ahal izan naiz.

Balorazio bat egite aldera, uda honetako gauza berriak ikasteko, eta batez ere, idazteko beldurrak kentzeko balio izan didala esango nuke.

Orain Italiara noa *Erasmus* programarekin, baina lasai, ikasitakoak motxilan eramango ditut.



# 8 hitzetan agortu zait!



Pat Cowie

**Egia esan, zerrenda hartu eta lehen bezain luzea iruditzen zait, eta dagoeneko abuztuaren bukaeran gaude!**

**U**dako zerrenda osatzen joaten naiz urte hasieratik, udan egingo ditudan gauzena. Badakizue, zuek ere egingo duzue-eta: hau eta hori udan egingo ditut, denbora gehiago eskatzen duelako, dedikazio pixka bat behar duelako, utzi eta utzi ari naizelako, ilusioa egiten didalako... Zerrendako horretako zenbait eginkizun, gutxi batzuk, gauzatu ditut; baina, egia esan, zerrenda hartu eta lehen bezain luzea iruditzen zait, eta ia abuztuaren bukaeran gaude!

Uda hasieran lagun batekin hartu nuen kayak bat, arraun klubean eta ibaian gora eta behera ibili ginen, besoak nekatuz eta gustura; baina, agindu banion ere, oraindik ez dut antolatu plan hori bera senarrarekin. Euskaraldia datorrela-eta, nire euskarari distira pixka bat aterako niola erabaki nuen, baina ez dut ezta irakurgai-zerrendaren buruan dagoen Juan Kruz Igerabideren *Maite poemak hasiberrientzat* eskatu liburutegian. Ez da sekretu bat aitortzea zahartzaroan gaudela nire mugikor eskasa eta biok, baina alabari erakusteko denbora lapurtzea ere ez da zilegi.

Ekainean sartu ziren —pentsa!— baina ez dut oraindik etxeko teilatu-azpia etxetzat hartu duten erleak beste norabait bidaltzea lortu. Ni, bai, inguruan ibili naiz, Zarautzetik Urdanetara oinez, lagun batekin, baina egun

hartako gogoarekin imajinatzen nituen txango luzeagoak ez ditut bideratu.

Hasierako pausoak egin ditut batzuetan, baina enkargua bukatu... ez. Kostan elkartearantzako enkargua gerorako utzi dut, dendariak oporrak hartu baititu iraila bitartean. Dantzatu ditut *mutxikoak* Zubietan, Donostian eta Zarautzen, baina urte hasieratik buruan sartu ez zaidan mutil-dantza hori oraindik korapilatuta daukat.


*Hamabostaldia* dela eta, zer esanik ez, disfrutatu dut: organoa eta txistua, Kalaka taldea, Iñaki Salvador, Kukai taldea... gutxitxo, akaso, dagoen aukera ikusita.

Beste hamaika gauza egin baditut ere, bilobekin gauza gehiago egin nahi nituen, esaterako, baratzak uzta handiagoa ematea... Baina bukatu da! Nireak egin du! Ez dago atzera bueltarik!

Akabo udako zerrendako gaiak gauzatzeko aukera. Luzea zirudien udak; luzeagoa zerrendak. Baina aste honetan, ETBlean, Onintza Salazarrek esan digu hilabete baino gutxiago gelditzen dela hamabi orduko eguna eta hamabi orduko gaua izateko.

Hara! Kolpe batez konturatu naiz zortzi hitzekin agortu zaidala uda!

Tira! Laster datoz Gabonetako egun lasaiak...



**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



**Harrespil**

Hilerrri Zerbitzuak




Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

# “Ez nuen espero jaietan jasotako omenaldia. Hunkigarria izan zen”

## Antxon Larrarte

Santio Erreka auzoko bizilaguna



Duela 44 urte, Antxon Larrarte *Aranguren*ek 13 arrobako ingudearekin erakustaldia egin zuen Santio Jaietan, eta orain arteko markarik onena lortu zuen.

### AINARA LASA

Santio Erreka auzoko Aranguren baserriko Antxon Larrartek, duela 44 urte 12 arrobako ingudearekin apustua irabazi zuen auzotar baten aurka, Aian. Ingudea berea ez zenez, 13 arrobako beste ingude bat eskuratu zuen horretarako; eta urte berean, Santio Jaietan 13 arrobako bere ingudearekin erakustaldia eman zuen Larrartek frontoian.

#### **Azken Santio Jaietako herri-kirol saioan omenaldia egin zizuten. Ilusioa egin zizun, ezta?**

Izugarrizko ilusioa egin zidan, ez nuen espero. Frontoira harri erakustaldia ikustera joan nintzen eta nire izena aipatu zutenean harrিতuta geratu nintzen. Egia da gertaera garrantzitsua izan zela, orain dela 44 urtekoa. Garai hartan ingudearekin inor ez zen ibiltzen, laguneren artean aritzen ginen. Apustu bat egin genuen, 13 arrobako ingudea nik baietz altxa, eta erraz irabazi genuen.

#### **Orditik 44 urte pasa dira. Zein oroitzapen dituzu?**

Igandea zen eta goizeko 09:00etan meza izan ohi zen Santioko ermitan; meza entzun ondoren, apustua jokatzera joan ginen Aiara. Izugarria izan zen, plaza leporaino. Gaur egun ere askok esaten didate orduko irudi hori grabatuta geratu zaiela. Jendea Aiara oso gustura joan zen ikuskizunaz gozatzen, eta bertako auzotar bati irabazita, izugarrizko poza hartu nuen; urte horretan

bertan 13 arrobako ingude bat hartu eta nire auzoko (Santio Erreka) festetan altxa nuen; ikusgarria izan zen. Zaletasunak baino gehiago, gaztetasunak, nuen indarrak eta, batez ere, lagunek bultzatu ninduten erronka hori betetzera. Nire etxean ez zuten nahi ingudearekin aritzea, berez, astakeria baita. Nik ez nuen entrenatzailerik, nire koadrilakoekin entrenatzen nuen; ez mediku, ez prestatzailerik... ezer ez genuen; egunean txuleta bat jaten nuen, entrenatu eta itsasora joan behar nuenean, harantz joaten nintzen.


#### **Asko aldatu da herri-kirolen tradizioa ordutik hona?**

Pena txiki bat izan ohi dut. Gure garaian ez genuen egun harri-jasotzaileek dituzten eskolak, prestatzaileak... garai hartan orain dauden baliabideak izango banitu, askoz ere erronka handiagoei aurre egiteko aukera izango nuke, arropa gehiagoko ingudeak altxaz, teknika zehatz eta eraginkor batekin. Zentzu horretan asko aldatu da herri-kirolen mundua material, mantenu eta teknifikazio aldetik. Orain dagoen teknika izugarria da.

#### **Aiako gazteek zuen urratsak jarraituko dituztela uste duzu. Belaunaldi oparoa dator?**

Belaunaldi oparoa dago, eta dator; herri-kirolek Aian inoiz baino indar handiagoa dute, eta etorkizuna bermatua dago hemen. Kirolari bikainak ditugu.





**ASADOR XIXARIO**  
Eusko Gudarien Kalea, 2  
Tel. 943 830 019 - ORIO

**ARISTERRAZU**  
jatetxea  
Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Gabon**  
TABERNA  
✓ Pintxoak  
✓ Plater konbinatuak  
✓ Ogitartekoak  
943 83 06 09

**arkaitz taberna**  
••• orio •••  
- EGUNEKO MENUA  
- OGITARTEKOAK  
- PINTXOAK  
- PLATER KONBINATUAK  
- KARTA  
Terraza ederrarekin  
giro ezin hobea  
abeslari kalea 6 - 943 831 657

**PIZZERIA**  
  
**KALETA**  
ARRANTZALE KALEA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

**HAIZE BERRI**  
taberna-jatetxea-kafetegia  
Plater konbinatuak,  
bokatak,  
hanburesak,  
razioak,  
eguneko menua...  
**ostiralean  
pintxo  
potea!!**  
eta etxera eramateko  
zerbitzua!  
**943 831 623**  
Orioko kiroldegian, Eribera 1  
Gozietan  
itxita

**BOGA BOGA**  
  
Orio  
Hondartza bidea  
943 89 21 31  
Menu Bereziak

*edaritegia*  
**ANTILLA**  
*jatetxea*  
Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

**Portu**  
**ERRETEGIA**  
Santio Erreka Auzoa, 2/g  
943 89 44 34  
20809 AIA-ORIO  
*kazalitate baserriko oilaskan  
parillako erretiak, eguneko menua...*

**SU KIA**  
TABERNA - JATETXEA  
On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!  
- OILASKO ERREAK ERAMATEKO  
- EGUNEKO MENUA  
- EGUNKARIAK  
- OGIA  
TF: 943 892 129  
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

**ITZALA**  
*kartetan jokatzeko  
aprososa*  
tel. 943 83 12 59

**kutixi**  
kafetegia  
GOSARI GOXOAK  
Aritzaga 9, 20810 Orio  
TF: 943 13 15 17

**niko**  
taberna  
Karta · Pintxo tradizionalak  
Okindegia  
Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

**KOLON TXIKI**  
edaritegia  
jatetxea  
Herriko Eparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**BODEGAS**  
*Gailur*  
01307 BAIÑOS de EBRO  
Tel./Fax 945 60 91 58  
www.bodegasgailur.com  
Arabar Enrioxa

**ZUDUGARAI**  
  
Getariako Txakolina  
Tel. 943 83 03 86  
Fax 943 83 59 52  
bakolizudugarai@euskalnet.net  
www.bakolizudugarai.com

**KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA**  
  
**GELATTO**  
OGI BERRI  
943 578 176  
Herriko enparantzan  
**lzozki naturalak Opilak**





# Zergatik ez?

## galderari arraunean erantzunez

Orion oihartzun zabala izan du uztailean herriko 30 emakumek egindako itsas zeharkaldiak. Neguko hilabeteak gogor entrenatzen eta arraun egiten ikasten pasa ostean, Oriotik Bilborainoko joan etorria egin zuten traineruz, lau egun iraun zuen erronkan.





**TESTUA: IÑIGO GAITON**  
**ARGAZKIAK: EGIGUREN**

Ipar mendebaldeko haizea indartsu dabil egunsentian, eta uda izanagatik, laino beltzek gupidarik gabe estalia dute zeru-gaina. Goizaldeko sei t'erdia Arraunetxan, 2018ko uztailaren 12a. *Zergatik ez?* taldeko kideak batera eta bestera dabilta errio bazterreko instalakuntzetan, zeharkaldirako azken prestaketetan buru-belarri sartuta. Arraunlariak urduri antzeman daitezke, eta euforia puntu bat nabari da giroan. Abiatu aurreko azken minutuetan, arraunlarien arteko oihu, besarkada eta muxuek ospakizun kutsua ere badute; hilabete luzez entrenatzen aritu ostean, gainean dute benetako proba.

Taldea osatzen duten 30 emakumeen ilusioak, tarteka, talka egiten du itxura onik ez duten baldintza klimatologikoekin. Autoan motxilak sartzen dabilen arraunlariak, pozarren, oihu egin dio beste bati, besoak zabaldu eta ukabilak itxiz. *Itsasoak jarriko du gutako bakoitza bere le-*

*kuan*, bota du airera beste batek, oinak lurrean eta begiak ibaiko gainazal kizkurtuan iltzatuta.

Zazpitan puntuan, trainerua bizkarrean hartu eta errioren behera abiatu da lehen tripulazioa, itsasaldera. Gainontzekoek, Ondarroarako bidea hartu dute bi furgonetetan. Hasi da erronka.

### **Itsas baldintza gogorak lehen egunean**

Eli Manterola *kontrankeko* postuan zihon arraunean zeharkaldia hasi zenean, ababorretik, eta itsasora atera orduko goitik behera blaitu zen. *Zarautz aldera abiatu ginenean, haizeak bete-betean jotzen zigun kontrako noranzkoan. Olatuak ez ziren handiak, baina sarri kolpatzen zuten txalupa, eta itsasoa oso nahastuta zegoen. Orduantxe hasi eta goiz osoan iraun zuten euri jasan ondorioz ere, trainerua ura hartzen hasi zen.*



“Entrenamenduetan ez zitzai-  
gun halako itsas baldintza  
zailik egokitu, eta lehen eguna  
zaila izan zen.”

G. Yarza

“Bermeon harrera ikaragarria  
egin ziguten. Hango jendea  
“Aupa Orio!” oihuka entzuteak  
hunkitu egin gintuen.”

E.Manterola

Egoera horretan, ardura sentitu zuten *hanketik* arrau-  
nean zihoazen Yarza ahizpek. Tripulazioa urduritzen ari  
zela antzemanda, kontzentrazioa eskatzen zuten biek,  
palak uretan ahalik eta denbora luzeenean mantendu eta  
trainerua gogortzeko. *Entrenamenduetan ez zitzai-  
gun halako itsas baldintza zailik tokatu, eta irteera hura ez  
zen erraza izan. Urduritasuna nabarmena zen tostartean.  
Ahizpa eta biok ahalik eta ondoen arraun egiten saiatu gi-  
nen, gainontzekoek gure erritmoa jarraitu eta pixkanaka,  
aurrera egin genezan, gogoratu du Gurutzek.*

Orion bizi den hernaniarra ez da hasiberria arraun  
kontuetan. Duela hogeit urte inguru, Hernaniko taldean  
aritu zen arraunean. *Garai hartan, emakumeok batele-  
tan bakarrik lehiatzen ginen. Ni, tarteka, traineruan ere  
aritzen nintzen gizonetarekin, dio telefonoaren bestal-  
detik. Talde kirolean jardutera ohituta egonik, Zergatik  
ez? proiektuko kideekin dinamika ona sortzea izan zen  
bere erronka nagusia. Taldeko partaide gehienak, aurre-  
tik arraunean aritu gabeak ziren, horrek dakarren guztia-  
rekin; nik oso barneratuta nituen gauza batzuk, trainerua  
bizkarrean hartu eta uretara botatzen ikastea, kasu, asko  
kostatu zitzaion taldeari. Besteen erritmora egokitzea  
tokatu zitzaion Gurutzeri, baina bere iritziz, handia izan  
da prestaketa hilabeteetan eta erronka egunetan taldeki-  
deek erakutsi duten konpromisoa.*

### Getarian geldialdi luzea

Erronka hasi zuen traineruari asko kosta zitzaion Ge-  
tariara iristea. Bi ordu inguru eman behar izan zituzten  
arraunean. *Ura hartu eta hartu ari ginela ikusita, aurre-  
kalaria patrioiaren atzean esertzera pasa zen, branka arin-  
tze aldera, gogoratu du Eli Manterolak. Itsasoan beldu-  
rrik sentitu ez arren, lehen etapako helmugara iristeko  
gai izango ote ziren zalantza sortu zitzaion: Oriotik goize-  
ko zazpitan atera eta Bermeora arratsaldeko hiruak alde-  
ra iristea zen plana. Bazkalosteko ordu horretan, Getarian  
ginen oraindik, zer egin erabaki ezinda.*

Egun horretan tentsio uneak bizi izan zituzten. Azken  
hitza itsasoarena izan ohi dela jakin arren, zeharkaldia  
halako baldintzetan hasia ez zen beren aurreikuspenen  
sartzen, eta egoera horretan, taldekide batzuei kosta  
egin zitzaion emozioak kudeatzea. Azkenean, luze itxa-  
ron ostean, arratsaldeko lauak aldera atera ziren Getaria-  
tik, eta iluntzeko bederatziatan ailegatu ziren Bermeoko  
portura. *Hango harrera ikaragarria izan zen, nabarmen-  
du du Elik. Bermeoko jendea “Aupa Orio!” oihuka entzu-  
teak hunkitu egin gintuen. Guk ere beraiei “Bai bai bai, Ur-  
daibai!” erantzuten genien... Oriotarrak eta bermeotarrak  
elkar animatzen, ederra marka!*

### Momentu gogorak Bilbon

Bigarren etapa Bermeon hasi eta Bilbon bukatu zuten.  
Eliren eta Gurutzeren esanetan, Nerbioi ibaian bizi izan  
zuten fisikoki momenturik zailena. Elik gogoan du izan  
zuen beherakada: *Goizean goizetik eguzkiak egurra eman*





*zigun, eta Bilboko ibaian, bereziki, asko sufritu genuen. Ez zebilen haizerik apenas, eta giro sargoria zegoen. Porturatu ginenean, itzala bilatu eta negar egiteari ekin nion, ezinagatik. Hori izan zen niretzat zeharkaldiko unerik gogorrena.*

Gurutzeren esanetan, neguko hilabeteetan egindako lanari esker, taldekideek ondo prestatuta egin zioten aurre erronkari, baina Nerbioi ibaian berak ere asko sufritu zuen. Bilbon harrera egin ostean, Portugaletera jeitsi behar izan zuten berriz arraunean, han trainerua lehorrera igo eta etapa bukatzera. Marea eta haizea kontra izan zituzten, eta egun horretako arraun ordu guztiak gainera etorri zitzaizkien. Izugarri kosta zitzaien haraino iristea. *Nik ipurdiko minari nion beldurrik handiena, baina nahikoa zorte izan dut. Nire ahizpak eskuetatik ikaragarri sufritu zuen. Eskuak haragi bizitan zituela bukatu zuen erronka. Esan bezala, fisikoki guretzat zeharkaldia ez da hain gogorra izan, baina taldekide batzuentzat bai. Miresgarria iruditu zait, adibidez, Sorkunde Lizasok eta Pili Bergadok egindakoa. Ikaragarria. Entrenamendu bakarra ere ez zuten kale egin, eta entrenatzaileak bidalitako etxerako lan guztiak egin zituzten.*

### **Azken bi etapak, eroso**

Lehen eguneko ekaitza eta bigarren goan izandako beroa kontuan hartuz, erronkako hirugarren eta laugarren egunetan baldintza hobek izan zituzten. Hirugarrena Portugaleten hasi zuten, eta ordurako arraun orduen zama antzeman arren, arraunlariek ondo egin zioten aurre

# 198

**kilometro itsasoz.** "Zergatik ez?" taldeko arraunlariek 198 kilometro egin zituzten itsasoz, lau egun iraun zuen zeharkaldian. Partaide bakoitzak, batz bestea, etapako bi ordu eta erdi inguru egin zituen arraunean.



etapari. Egin beharreko distantziarik luzeena izanagatik eguna erreparoz hasi arren, eroso bukatu zuten. *Arraunean gindoazela, gogoan dut Pili taldekideak Apikaletik (laguntza ontzia) bota zigun oihua: "Ondarroa labur geratuko zaigu!"*, gogoratu du Sorkunde Lizasok. Berarentzat, oparia izan da proiektu osoa. *Erronka baino are gozagarriagoak izan dira prestaketetan emandako bederatz hila-beteak, azaldu du. Nork esan behar zidan niri, ia 58 urterekin, entrenamendu batean egin genuen bezala, Donostiako Badiara arraunean malkotan sartuko nintzenik?*

Elkarrizketa erronka pasa eta hilabetera egin arren, Sorkundek borborka du emozioa oraindik. *Zeharkaldia bukatu eta jendearen zorion hitzak jasotzean, ezeroso sentitu izan naiz. Kanpora begira, gure proiektuak oihartzun zabala izan du; tarteka, gehiegi ere bai. Erronka hau niretzat egin dut, eta barru-barruan sentitu dut. Oso berezia izan da estropalariak erriean ikustera ohituta egotetik, tostartean sartu eta arraunari tiraka hastea.*

Bere hitzetan, *arraunean emandako orduetan, ahaldun-duta sentitu naiz, indartsu. Gerrarako prest!* Esker oneko hitzak besterik ez ditu hilabete guztietan ondoan izan dituzten entrenatzaile, prestatzaile fisiko eta patroientzat. *Beraiek egin dute egiazko lana; gurea errazagoa izan da, tostan eseri eta tira!*, dio oriotarrak.

### Orioko ongietorri ederra

Azken etapa Ondarroan txalupa bakarrarekin hasi ostean, Oriora iristeko beste traineru bat atera zuten itsasora, taldeko partaide gehienak arraunean porturatu zi-

tezen. 30 emakumek parte hartu zuten proiektuan, eta zeharkaldia traineru bakarrean eginik, batzuei besteei baino arraun gehiago egitea tokatu zitzaizen. Sorkunderen hitzetan, *orokorrean, hori ondo kudeatu dugu taldekideok, eta nabarmendu egin nahiko nuke guztion artean izan dugun giro ona.*

Oriora sartu zirenean, erriko ura marroi kolorekoa topatu arren, uretatik moila horiz jantzita ikusteko aukera izan zuten. Emozio une ederrak bizi izan zituzten iritsieran. *Pentsa, ni hernaniar petoa izanik, bihotza horitu zidan egun hark!*, gogoratu du Gurutze Yartzak irribarrez.

Eli Manterolarentzat ere berezia izan zen iritsiera; azken finean, eliteko kirolarien lana goraiatzera ohituta dagoen herriak lagun kuadrilla baten abentura txalotu zuen egun hartan. *Orion arrauna asko bizi izan da, baina beti eliteko kirol moduan. "Zergatik ez?" proiektuak arraunaren ikuspegia zabaltzen lagundu duela uste dut, eta hori garrantzitsua iruditzen zait gurea bezalako herri batean. Estropadetatik harago, arraun egite hutsa benetan gozagarria da, eta niretzat luxua izan da azken hilabeteetan bizitako esperientzia.*

Aspaldi lehorreratu arren, itsas marruma barru barruan geratu zaie hiru arraunlariei; aurrerantzean tostartera itzultzeko ilusioari eusten diote, baina oraindik ez dakite horretarako aukerarik izango duten. Borondatea eta norbere mugak hausteko grina, behintzat, ez zaizkie falta.









# San Donato San Lorentzo

## Arrakastatsuak izan dira Aiako festak

2018ko San Donato eta San Lorenzo jaiek egitarau oparoa izan dute. Astebetez, gustu eta adin guztiak asetzeko nahi adina ekitaldi izan dituzte Aiako festetan izan direnek. KARKARA ere han izan zen, festa giroa argazkietan jasotzen.





Ana Mari, Paulo, Angel eta Maite Fernandez Martikorena, izeba Mariarekin. IÑAKI ITURAIN

## Itsasoak ekarritakoa

**A**urtengo abuztuaren 2an *desenbarko* bat izan genuen Orion. Hogei arraun-ontzi lehorreratu ziren, hiruna arraunlarirekin. Mutrikutik zetozen. Biharamunean Pasai aldera jo zuten. Euskal kostaldea zeharkatzen zebiltzan. Astelehenean Castrotik abiatuta, larunbatean Donibane Lohitzunen bukatu zuten itsas bidaia. Donibane Lohitzuneko Urrikara elkarteak antolatzen du urtero, orain hogeita sei urte hasita. Gehienetan izan da Orio etapa-bukaera eta arraunlarien aterpe: plazan afaldu eta kiroldegian lo egin.

Aurten, lehenengo aldiz, oriotarrak ere baziren arraunlarien artean: Jon *Torrotxo* eta Ibon Gaztañazpi, eta aspalditxo Oriora ezkonduko David Elustondo zarauzitarra eta Andoni Torres donostiarrak. Andonik hirugarren aldia zuen aurtengoa.

Kiroletik eta lehiatik ere badu itsasoko ekimenak; baina bestelakotik ere bai: tradizioa, portuak eta jendea ezagutzea, patxadaz eta presarik gabe ibiltzea, itsasoaz gozatzeta, atsedena, gastronomia, Iparra eta Hegoaren arteko harremanak sustatzea...

Andoni Torres donostiarrak oriotarra zuen birraitona Tiburtxio Martikorena *Exkerra*. Biak arraunlariak. Bata Donostian, bestea Orion. Tiburtxio arraunlari bai, baina arrantzale ere bai, bizitza osoan. Behin patroiz joan zen Orioko traineruan Donostiako estropadara, 1921ean, Manuel Olaizola patroiz historikoak patroitzat utzi ondoren. Lehen estropada egunean, Tiburtxio eta bere mutilak arraunean joan ziren Oriotik Donostiara. Bidean, getariarrak egokitu zitzaizkien parean, trainerua bapore

batek atoa zeramala. Getariako mutilak zirikatzen hasi zitzaizkien oriotarrei, ea zer egin behar zuten atunetarako ontzi zahar handi harekin. Egun hartan Orio nagusitu zen. Bigarren estropada La Union klubak irabazi zuen, San Juanek eta San Pedrok historia guztian elkarrekin egin duten urte bakarrean. Haiek eraman zuten bandera, Orioren aurretik, segundo bakar batengatik.

Maite txikiak artean urtea bete gabe, aitaren izeba donostiar batek hartu zituen lau anai-arrebak, bi neska eta bi mutil. Han hazi zen neska, Donostiako kaian, Aquariumaren ondoko etxe batean. Maitek hamar urte zituela, aitona Tiburtxiok berriro Oriora ekarri zuen, Antonio Martikorena eta Josefina Uranga osaba-izebenera. Han bizi izan zen, harik eta 14 urterekin Donostiako Bulebarreko *bonboneria* batean lanean hasi behar izan zuen arte. Geroztik han egin du bizitza guztia Maite Fernandez Martikorenak. Eta han jaio ziren bere hiru seme-alabak. Haietako bigarrena da Andoni, historia hau azaldu diguna..

Gerra ondoko urte ilun haien berri ez zen transmititu etxe askotan, ezkutatu eta isildu egiten ziren orduko kontuak. Andonik ez zekien ezer askorik bere jatorriaz. 1998an baina, Donostiako estropada-egun batean, Orioko San Martin auzoko Anpolaita etxeko Nerea Gutierrez Esnalek ezagutu zuen.

Estropada eguneko topaketak ezkontza ekarri zuen handik urte gutxitara (La Union), eta mutil donostiarrak Oriora ekarri zuen bizitzera. Orion jakin du bere arbasoen berri zehatza.

**IÑAKI ITURAIN**



**Orioko  
Herri  
Ikastola**

**Guraso Kooperatiba**

**ABESLARI KALEA, 8**

**TEL: 943 83 47 04**

**FAX: 943 13 09 38**

**orio@ikastola.net**

**www.oriokoikastola.net**

**Izaskun Estankoa**

- .Tabakoa
- .Prentsa
- .Eskola materiala
- .Opariak

• Astelehendik ostegor  
8:00-13:15 - 17:00-20:00  
• Igardetan eta igardetan  
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel.: 943 831 212

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

ONDO ELIKATZ BIZI

**eusko gudariak 35 :: ORIO**  
[ sarrera Arrantzale kaletik ]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com

**ETXEKO BEREZITASUNAK**  
**ARRAIN ZOPA**  
**PARRILA**

**BODEGON SARASUA**  
ERRETEGIA

**Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05**

**OREKA FISIOTERAPIA**

*Tendinitisak  
Lumbalgiak  
Artrosia  
Zefaleak ...*

*Masaje terapéutico,  
bentosak, akupuntura,  
eskuzko terapia,  
osteopatia*

**943 13 35 37**  
*Arizaga kalea, 11 behea*

**ORIA**  
hortz klinika

Oria Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre etorkizunean sor daitezkeen arazoel.

Arrantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**ZUR EDER**  
muebles tapicería altzariak

zureder@zureder.com  
943 13 49 21  
Polígono Ubegun Nº1, Puerta 8  
20810, Aia-Orio

**AUKERA!**  
**50%**  
- ERAINOKO  
DESKONTUA  
KOLTZOIETAN

**Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.**  
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa  
Tel. 943 575 361

**oinarri**  
PODLOGIA ZENTROA

**JATETXEA**  
**Galerna**

Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

**LEUNDA OKINGEDIA**

**ORDUTEGIA**

ASTELEHENETIK - LARUNBATERA  
**7:00 - 20:30**

IGANDE ETA JAIEGUNETAN  
**7:00 - 13:30**

TEL.FON: 943-89.06.67

**Katu Horia**  
albaitaritza klinika

**ESTROPALARI, 10**  
20810 ORIO  
tel. 943 11 66 99

larrialdiax  
668 89 11 29

[www.katuhoria.com](http://www.katuhoria.com)

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

**Ubegun industriagunea, 4**  
Tel. 943 894 024  
Fax. 943 130 144  
20809 AIA - ORIO



# “Orion lan egiteak berezko izaera ematen die nire diseinuei”

## Goiuri Unanue

Diseinatzailea eta jostuna

Goiuri Unanuek egindako jantziak Getariako Cristobal Balenciaga museoan egon dira ikusgai eta salgai uda honetan, talentu gazteen diseinuekin osatutako erakusketa batean. Diseinatzaile oriotarraren esanetan, jasotako kritika onek moda munduan bere bidea egiten segitzeko indarra eman diote.

### TESTUA ETA ARGAZKIAK: IÑIGO GAITON

Goiurik Dikeko aldaparen azpialdean duen lokalean hartu du KARKARA, udako eguerdi bero batez. Oriotar gazteak han diseinatzen, produzitzen eta saltzen ditu bere markako produktuak. Maniki, oihal, jostorraz, metro eta josteko makinaren artean, moda kontuez barru-barrutik mintzo da hogeita lau urteko oriotar gaztea.

#### Nondik dator kizua ofizio honekiko fjazioa?

Etxetik. Amona Inazita modista lanetan jardun zen urte luzez, eta sukaldean izaten zuen josteko txokoa. Lehengusuok bisita egitera joaten ginenean, lurretik jostorrazak biltzen aritzen ginen. Amonak ordu asko ematen zituen lanean, eta guk, bitartean, soberan zituen tela zatietik panpinen arropoi konpoketak egiten genizkien.

Amonak arropoi moldaketak egin eta konpontzeaz gain, jantziak egiten ematen zuen denborarik gehiena: etxerako bata, ezkongaien jantziak, komunioetarako soinekoak...

#### Ordutik gaurdaino, lanbidea asko aldatu al da?

Garai hartan teknika artisauagoa zen. Azken urtetan, digitalizazioak aldaketa handiak ekarri ditu gure lanerako eran, baina iraultzarik nabarmenena industrializazio garaian eman zen.

#### Oraindik ba al dituzu amonarengandik ikasteko gauzak?

Goi mailako jostuntzan, alegia, eskuz josteko tekniketan, pila bat. Nik jostuntza eta diseinu unibertsitate ikasketak egin nituen Bartzelonan, eta han, *Inditex* eta tanke-rako etxeetan lan egiteko prestatu gintuzten; produkzio azkarrerako, garbi esanda. Amona tarteka etortzen da dendara bisitan, eta nire lanerako primeran datozkidan trikimailuak erakusten dizkit; azken finean, guk sortu dugun markan eskuz egiten ditugulako produktuak.

**Zure jenerazioko gazte askori kostatzen ari zaio unibertsitateetik lan mundurako urratsa ematea. Nola izan zen zure kasuan?**



Unibertsitateko azken ikasturtean marka bat sortu eta poltsak egiteari ekin nion, ikaskide batzuekin batera. Proiektu horri segika iritsi naiz gaurdaino, olatu baten gainean banengo bezala. Ikasketak amaitutakoan Kutxa Kultur programarako hautatu ninduten, eta Donostiako Tabakaleran aritu nintzen lanean. Gero, Orion denda zabaltzeko apustua egin nuen, gure markako arropak diseinatu, produzitu eta saltzeko.

Azken hilabeteetan aipaturiko inertzia hori indarra galtzen joan da, eta orain inflexio puntu batean nagoela uste dut. Aurrerantzean zein bide hartu nahi dudan erabaki behar dut; buruan ditudan ideiei forma eman eta guztiak norabide bakarrean jartzen saiatu.

**Orioko denda zabaltzeko urratsa eman aurretik, beldurrik sentitu al zenuen?**

Bai, noski. Ez da erraza. Oraindik ere zalantza asko sortzen zaizkit, batik bat enpresa arloari dagozkionak.

Igerian jakin gabe egin nuen salto igerilekura, eta orain ari naiz ikasten... kar kar kar

**Gazte ekintzailearen figurak indarra hartu du azken urtetan. Ez al da pixka bat idealizatu?**

Izan daiteke. Jendeak ausarta naizela esaten dit, 24 urterekin nire negozioa dudalako, baina nik ez dut uste horrela denik; besterik gabe, lanerako beste aukera bat da nirea. Hala ere, nagusirik ez izateak polita dirudi kanpotik, baina gogorra ere bada.

Bestalde, ordu asko ematen ditut jostintzarekin eta diseinuarekin zerikusirik ez duten lanetan: burokrasia, promozioa, komunikazioa Interneten... Orain josten laguntzen didan langile bat dut Orioko dendan, eta hura harrিতa geratzen da ordenagailuan lanean ematen ditudan ordu guztiekin.

**Bat baino gehiago harritu izan da Orion zuen lokala ikusita. Nongoa da zure bezeroen gehiengoa?**



Orokorrean, Euskal Herrikoa. Orion ere badituzten nire bilduma guztiak dituzten bezeroak, eta haiei oso eskertuta nago. Hala ere, hasieratik argi izan dut negozioa ezingo nukeela aurrera atera oriotarrekin bakarrik, eta Internet bidezko promozio eta salmentari garrantzia handia ematen diot.

**Moda kontuak aipatuta Paris, Madril edo halako hiri handiak dira erreferente nagusiak. Zer ematen dizu hiriburua horietatik aldendu eta Orion lan egiteak?**

Lasaitasuna eta eguna lanerako ondo aprobetxatu ahal izatea. Bestalde, karrera egiten ari nintzenean, nahigabe, inguruko ikaskideek egiten zutenaren influentzia antzematen nuen nire lanetan. Logikoa da. Tabakaleran ere gertatzen zitzaidan hori. Orion lan eginda, bakartuago nago, eta barrutik ateratzen zaidana egiten dut. Kanpoko eragin hori gabe, nire lana izaera propioa hartzen ari dela ikusten dut.

Dena den, zorte handia dut, kuadrillako lagun batek ere moda ikasketak egin dituelako. Berarekin asko hitz egiten dut diseinu kontuei buruz. Eta Iker Gozategirekin ere bai, bere argazkigintza modan espezializatzen ari delako.

**Ikerrek eta biok ofizioa eta afizioa elkarbanatzen dituzue. Zaila al da bien arteko muga jartzea?**

Hasieran gustuz egiten genituen argazki sesioak, baina ni negozioarekin hasi nintzenean, lanari prezioa jarri genion. Oso modu naturalean egiten dugu lan elkarrekin, ederra da. Ikerrek primeran ezagutzen ditu nire lana eta gustuak, eta askatasun handia ematen diot argazkiak egiterako garaian. Bata bestearen lana aberasten saiatzen gara.

**Sorkuntza prozesuan, zalantza asko izaten al dituzu diseinuekin?**

Bai, gorabehera handiak izaten ditut; egun batean sortutakoa ederra iruditu arren, hurrengoan zakarrontzira bota dezaket.

**Orion bizita, itsasoak, ibaiak edo arrantza munduak inspiratzen al zaituzte?**

Itsasoak berak estimulu asko eskaintzen dizkit: formak, koloreak, testurak... Unibertsitatean proiektu dezente egin nituen arrantza munduko elementuekin. Benitoren abestiak ere sarritan jartzen ditut lanean ari naizen bitartean, eta bere abestietako letrak ere erabili izan ditut arropa bildumetan. Oteitzaren lanari ere erreparatu izan diot, batik batik fakultatean nengoenean.

**Uda hasieran, dantzan ikusi zintugun Harribilen Arinmak ikuskizunean. Zuk egin zenituen ikuskizuneko jantziak.**

Emanaldi horretarako sorginak hartu genituen ardatz, beren ohiko irudiari irauli bat emanez; argitsuago azaldu nahi genituen emakumeok, ederrago, atseginago. Balenciagaren diseinu batetik abiatuz, Nafarroako herritxo batetik hartu nuen jantzi horiek diseinatzekeo ideia.

**Kontzertu batean ere kantatu zenuen, ahizpa eta lagunekin batera.**

Dantzak eta musikak lanetik deskonektatzeko balio didate, baina aldi berean, inspirazio iturri ere badira.



“Iker Gozategi argazkilaria eta biok elkarren lana aberastzen saiatzen gara.”

“Orion, onerako edo txarrerako, ez dut kanpoko eraginik, eta barrutik ateratzen zaidana egiten dut.”



### **Zein da arropa bilduma bat sortzeko abiapuntua?**

Edozein estimulu txikik sor dezake txinparta; kalean ikusitako kolore batek, bizipenek,... Uda honetan atera dudana bilduma, adibidez, txikitako oroitzapen batetik abiatuz sortu nuen. Gurasoekin udan hondartza alde-  
ra joatean, duna eta mitxoleta ederrak zeuden lekuan gaztelu bat existitu zela kontatzen zidaten. Nire buruan, gaztelu horretan bizi ziren pertsonaiak irudikatzen nituen. Txikitako irudimen horiek izan dira bilduma diseinatzeke erabilitako abiapuntua.

Objektu soilago batekin ere sor daiteke ideia bat; ur izkinan topatutako enbor batekin, adibidez. Lehenik, egur zatia paperean marraztuko nuke, eta egur horrek hondartzaraino egindako bidea irudikatu, ibilbideko koloreak, paisaiak... Azken finean, bilduma batekin zerbait kontatu behar duzu.

### **Su txikian egiten dituzu arropak, eskuz, banaka. Horrek zein abantaila du eroslearentzat?**

Beste ezerean aurretik, kalitatea. Nik lehen eskutik eza-  
gutzen ditut erabiltzen ditudan materialen baldintzak. Bestalde, bezeroari nire produkturen bat hautsiz gero, erraz konpondu ohi dut neronek.

### **Eta, txikitik, nola egiten diezu aurre Inditex edo halako enpresa erraldoien eskaintzei?**

Ez diet aurre egiten, nik beste produktu bat eskaintzen baitut. Pentsa, ni ere joaten naiz Zara eta halakoetara arropa erostera!

### **Zuen produktu guztiak Orion eginak al dira?**

Bai, denak. Beste aukera bat litzateke ni diseinu lanetan zentratu eta produkzioa kanpora ateratzea, baina orain-  
goz ez dut hori nahi.

### **Nola egiten dira errentagarri eskuz egindako arropak, prezioak zeruraino igo behar izan gabe?**

Bitartekoak kenduta, zuzeneko salmentaren bidez. Nik egindako produkturik ez da saltzen beste dendetan, marka zabaltzen lagunduko lidakeen arren, oraingoz ez delako errentagarria niretzat.

### **Moden ondorioz, arropak azkar iraungitzen dira. Zu, aldiz, epe luzerako produktuak egiten saiatzen al zara?**

Hori da nire lanaren helburu nagusia, jendeak nik egindako arropak urte luzez erabiltzea. Horretarako, produktuek izaera propioa izan behar dutela uste dut, bereizten dituen zerbait. Nik ezin dut tendentziei jarraika ibili, beste era batera egiten dut lan.

### **Diseinatzaileen artean, zein dituzu erreferente nagusiak?**

Klasikoei dagokionean, Balenciagari diot miresmen handiena. Modernoetan, Yohi Yamamoto eta Comme Des Garcons japoniarrak eta Alexander McQueen. Josep Font diseinatzaileak DelPozo markarentzat egiten dituen lanak ere gustatzen zaizkit.

### **Azken hilabeteetan Getariako Balenciaga museoan egon dira ikusgai eta salgai zure lanak. Ondo joan al da erakus- keta?**

Bai, oso ondo. Jaso ditudan kritikak onak izan dira, espero baino hobek. Erakusketak nire buruarengan konfiantza hartzeko balio izan dit.

### **Eta Orion halako erakusketarik egiteko asmorik ba al duzu?**

Beno, burua etengabe izan ohi dut bueltaka, eta badituztut ideiak! Amesten hasita, desfile bat egingo nuke herriko kaleetan, edo plazan, performance puntu batekin eta benetako modeloekin.

### **Elkarrizketa batean adierazitakoaren arabera, zure diseinuak Madrilgo edo Pariseko pasarela batean ikustea duzu amets.**

Beno, agian orain ez. Irakurri ditudan azken kritiken arabera, desfilearen formatua zaharkituta geratzen ari dela uste dut. Digitalizazioak ekarri duen iraultzarekin, desfileak egiterako diseinuak sarean zabalduta egoten dira.

### **Modaz gutxi dakigunontzat, pasareletako diseinu batzuk oso deigarriak izan ohi dira, ezta?**

Gauza berezi horiek, normalean, ez dira kalean janzteko egiten, gehiago daude arte espresiora zuzenduta, esperimentaziora. Nik unibertsitateko azken proiektuan egin nuen halako lan bat, diseinu bat mugara eramanez.

### **Non ikusten duzu zure burua bost urte barru?**

Pixkanaka hazten joatea gustatuko litzaidake: denda berriren bat zabaldu, langile gehiago izan, ... Hala ere, nire helburu nagusia gure marka zabaltzen joatea den arren, Parisko etxe handiren batetik deituz gero hara joango nintzatekeela uste dut.





# BADATOR...

IZEN-EMATEA ZABALIK **IRAILAREN 20**TIK AURRERA



## IZAN BELARRIPREST!

BELARRIPREST txapa soinean daramanak adierazten du babesa eman nahi diola euskaraz egin nahi duenari. Gai da euskara ulertzeko eta euskaraz egin diezaioten nahi du, nahiz eta, beharbada, ez den gauza izango beti euskaraz erantzuteko.

Belarriprest izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin, baizik-eta jokaerarekin! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbita egin nahi diozu? Izan belarriprest!



## IZAN AHOBIZI!

AHOBIZI txapa soinean daramanak adierazten du euskara gehiago erabili nahi duela eta euskaraz bizi nahi duela. Euskaraz egiten die beti beste euskaldunei eta euskara ulertzen dutenei, eta euskarari eusten dio haiek gaztelaniaz erantzuten diotenean ere. Ezagutzen ez dituenekin lehen hitza euskaraz egiten du eta, ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.

Ahobizi izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin, baizik-eta jokaerarekin! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Izan ahobizi!

# Irailaren 20an zabalduko da epea EUSKARALDIAn izena emateko

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da Euskaraldia. Helburua da 11 egunez euskaldunak beti euskaraz egitea euskaldunari eta euskaraz ulertzen duenari. 'Ahobizi' edo 'Belarriprest' gisa eman daiteke izena.



**U**dako etena eta gero, lana gogoz egiteko momentua da Orion Euskaraldia antolatzen ari den lantaldearentzat. Lantaldearen lehenatasuna, momentu honetan, izen-ematea bultzatzea da eta horretara bideratuko ditu ahaleginak irailaren 20tik aurrera.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo da azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Helburua da 11 egun horietan ariketa kolektibo handi bat egitea, euskararen erabilera areagotzeko, premisa nagusi honetatik abiatuta: euskaldunak beti euskaraz egingo dio euskaldunari eta euskara ulertzen duenari. Euskaraldian parte hartzeko, izena eman behar da aldezturik, eta bi modutara egin daiteke hori: *Ahobizi* gisa ala *belarriprest* gisa (aurreko orrialdean dago azalduta zein diren rol bakoitzaren ezaugarriak).

## Elkarteengana iristeko ahalegina

Orion Euskaraldia antolatzen ari den lantaldeak ahalegin berezia egingo du irailetik aurrera herriko elkarteengana iristeko, haiek ere Euskaraldian parte hartzea bultzatu dezaten bere kideen artean. Elkarteen papera ezinbestekoa izango da parte-hartze masiboa lortzeko eta, horregatik, lantaldeko kideek banan-banan joko dute berengana, babesa eta laguntza eskatzeko.

## Zer egin behar dute elkarteek?

Herriko elkarteek honako hau eskatuko die Euskaraldian lantaldeak izen-emateari begira:

- Elkarteko kide bat edo batzuk izendatzea

ordubeteko bilera bat egiteko, ondo ulertzeko zer den Euskaraldia eta zer egingo den azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean.

- Elkarteko hamalau lagun 'fitxatu', publikoki adierazi dezaten Euskaraldian parte hartuko dutela, *ahobizi* edo *belarriprest* gisa.

- Hamalau horien izenak publiko egin, eta elkarteko kideak animatu berek ere izena eman dezaten irailaren 20tik aurrera.

- Modu paraleloan, informazioa banatu elkarreko kideen artean, garbi azaltzeko zer den Euskaraldia, zer den *ahobizia*, zer *belarriprest*... eta, beharrezkoa bada, prestakuntza-saio labur bat antolatu elkarteko kide eta ingurukoentzat.





# Aiar gazteen topagunea

Orain dela urte bete eskas zabaldu zituen ateak Aiako Xatur Gazteleku berriak. Lehengoa txikia geratu, eta Udalak Lardizabal Eskolako eraikin zaharra utzi zien herriko gazteei, eurek beren gustura jarri eta nahieran moldatzeko. Pozik agertu dira aiar nerabeak lekualdatze horrekin.

**TESTUA ETA ARGAZKIAK: AINARA LASA**

Charles Chaplinen irudiak ematen du ongie-torria Aiako gazteleku berriko lehen solairuan aurkitzen den solasaldietarako txokora. Chaplinek *El Gran Dictador* (1940) filmaren amaierako diskurtsoan dioen moduan, *sortzeko ahalmenak garamatza zoriontasunera; finean, bizitza abentura eder bat izatera*. Nolabait, gaztelekuan egon ohi diren neska-mutilek esaldi hori berresten dute. Akaso, horregatik margotu zuten beren kabuz, paleta eta brotxa eskuan hartuta, Chaplinen irudia horma horretan. Aiako Udalak, Lardizabal Eskolako eraikin zaharreko giltzak eskura eman, eta herriko gazteei –gaztelekua ludoteka berria ere eraikin berdinean dago– sortzeko parada eman zien. Urtebete geroago, aiar gazteek hormak apaindu, altzairuak ipini eta goxoa baina era berean praktikoa den topagune bat sortu dute.

## Haurrak eta nerabeak, guztiak bat

*Lehengo gaztelekua oso txikia zen, ez ginen denak sartzten, eta nahiko itogarria zen guztiontzat han egotea. Eraikin honek, ordea, aukera asko ematen dizkigu; baina batez ere, ludoteka eta gaztelekua eraikin berdinean hartzeak ahalbidetu du haurrek eta gu, gazteok, batera asteburu arratsaldeak igarotzea, eta ekintza desberdinak batera egitea”,* diote Aiako gaztelekuko zenbait kidek.

Hainbat solairu ditu eraikinak; lehenengoan jokoan eta solasaldien gela (gazteen eremua, 16 urtetik gorakoentzat), ordenagailu gela eta Xatur ludoteka daude. Behe-



Gaztelekuko nerabeak, solasaldietarako txokora.



Gaztelekuko nerabeak, solasaldietarako txokora.



an.



koan, berriz, txikientzat jangela dago. Oraingoz, urte baten buruan, ludoteka eta gaztelekua osatzen duten gelak atondu dituzte gazteek, euren kabuz. *Udalak eraikina utzi digu, eta zenbait material ere erraztu dizkigu, beste guztia guk egin dugu, imajinazioa eta ordu asko sartuz*, diote gaztelekuko ohiko erabiltzaileek.

### **Asteburuak, Aian hobe**

Gaztelekuko neska-mutilek goraiatu dute kokapen berriak eta bertan sortu dituzten gune desberdinek *Aian geratzera eta asteburua bertan pasatzera gonbidatzen dituztela. Lehen Zarautzera edo Oriora joan ohi ginen, horrek dakartzan gastuarekin eta denbora galtzarekin. Lehen, Aian ez genuen gure espazio propioirik; orain, ordea, ongi pasatzeko eta elkarrekin egoteko txoko bat daukagu, diote nerabeek.*

Halaber, beste lekuetan, ematen ez den faktore bat ere azpimarratu dute. *8 eta 12 urteko haurrekin egon ohi gara 12 eta 18 urte bitarteko gazteok. Denok batera jokoak prestatzen ditugu, eta elkarrekin egiten ditugu jarduerak. Hori Zarautzen adibidez, ez da gertatzen. 16 urteko bat ez da zortziko batengana gerturatzen. Hemen, ordea, familia handi bat bezala gara.*

### **Herrigintzan aktiboki parte hartzen**

Gazteen topagune izateaz gain, Aiako gazteleku berria ideia berrien sorleku da. Bertako gazteek urtean zehar bilera asko egiten dituzte. *Aiako jaiak, gazte festak, edo bestelako jarduerak antolatzeko herri mailan. Ahal dugun neurrian herrigintzan esku bat botatzen dugu: kartelak margotuz, ekintza originalak eta berritzaileak Udalari proposatuz, edo besterik gabe, gure jarduerak kalera ateraz. Giroa sortzen dugu herrian, eta hori aiarrek ere eskertzen dute. Oraindik asko dute egiteke, baina Chaplinek keinu bat egiten die hormatik, jarraitu, abenturazaleok, esanez.*





emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa

**argine.**

%5eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio

943 134 889  argine/jantziak

*Garbiñe Arregi* *Moda eta osagarriak*

*Herrero plaza, 15*  
*635 706 265*

*jaiegundetan goizez zabalik!*

*Lizaso dekorazioa*

**Tf: 943 83 07 84**

**Faxa: 943 24 87 15**

**Eusko Gudari, 48**

**KAIOA**

Arropa  
Oinetakoak  
Osagarriak

Arrantzale kalea, 8  
T 943 244 685  
ORIO (Gipuzkoa)

Zigordia kalea, 18  
(S.Frantzisko kalearekiko izkina)  
T 943 021 834  
ZARAUZT (Gipuzkoa)

Eribera kalea, 10  
T 943 543 323  
ZUMAIA (Gipuzkoa)

Foru ibilbidea, 2  
T 943 252 375  
AZPEITIA (Gipuzkoa)

[www.kaioa.es](http://www.kaioa.es)

Ile apaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

**Eusko Gudari, 8 - behea**  
**Tel. 943 13 47 29**  
**ORIO**

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

INES ASENJO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO

TEL - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
i.asenjo@hotmail.es

**Desatascos**  
LASTER

24 HORAKO

**688 886 536**

Sagar erreka 21-A • 20590 Soraluze - Abaromendi bajo 3-20810 Orio - Tel.: 943 751 431  
desatascos@desatascoslaster.com • [www.desatascoslaster.com](http://www.desatascoslaster.com)

- Hodi-libraketa.
- Garbitketak presio handiko urarekin.
- Saneamendu-sareen mantenu prebentiboa.
- Hodien, suirbideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerarekin.
- Uholde urak ateratzea.
- Ezkeruko kuxatilen detekzioa.

**urbide**  
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4  
20800 | Zarautz  
943 890 069  
urbideiturginak@gmail.com  
[www.urbide.es](http://www.urbide.es)

**K-U-K-U-A-R-R-I**  
ELEKTRIZTATEA

Tel.943 100 181  
Mobila 640 281 308  
Zigordia, 52 - Behea C  
20800 Zarautz

[kukuarri@kukuarri.com](mailto:kukuarri@kukuarri.com)

**Seguros Bilbao**

Tel: 943 111 600  
688 714 869

Santi Barranco  
Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1  
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: [sbarranco@segurosbilbao.com](mailto:sbarranco@segurosbilbao.com)

**ITZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03

**ttipi**  
ttapa

943259695  
[ttipittapa.oihane@gmail.com](mailto:ttipittapa.oihane@gmail.com)  
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orio

**GARMENDIA**  
HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.:943 834 466 - Fax: 943 132 941  
[informacion@garmendiagestion.com](mailto:informacion@garmendiagestion.com)

**Zaragueta**  
Herri Eskola *Orio*

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: [012137aa@hezkuntza.net](mailto:012137aa@hezkuntza.net)

**PATXI OLIDEN**

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47



## Erniora igoera, ohitura zaharrei eutsiz

**T**naxio Iruretagioena Ernioko erromeriak eta igoerak iraganean izaten zuen arrakastaren lekuko izan zen. Goiko argazki atera zien Erniora, orain dela zenbat hamarkada, irailero igo ohi zen neska kuadrillari. Zehazki, ezkerretik hasita, eskuinera, M<sup>a</sup>Aitzpea Iruretagioena, Puri Arrizabalaga; M<sup>a</sup>Luisa Ibarguren; M<sup>a</sup>Jesus Ibarguren, Ana M<sup>a</sup>Arruti eta Vitori Albeniz ageri dira goiko argazkian.

Tradizio hark oraindik bizirik dirau; horren lekuko, datorren iraileko asteburuetan Erniora aiar eta oriotar askok egingo duten ibilaldia. Datorren hileko igande guztietan egingo diren mendiko txangoez gain, Zelatungo erromeria ere entzutetsua izango da. Irudian islatzen den bezala, ohitura zaharrek oraindik ere bizirik diraute.

Argazkia: Inaxio Iruretagoienaren artxiboa

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**azku**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com



# Udaleko inbertsioen gauzatzea eztabaidagai



Bikamiota auzoa, han gauzatutako obren ondoren. KARKARA

Orioko Udaleko 2018ko Aurrekontuetan, gastuen atala sei zatitan banatuta dago: 1-Pertsonal gastuak, 2- Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan, 3-Transferentzia arruntak, 4-Kreditu globala, 5-Inbertsio errealak, 6-Kapital errealak.

Azken udalbatzarretan, alderdien arteko eztabaida piztu izan du inbertsio errealek gauzatzeak. Oposizioko alderdietatik, inbertsioak behar beste ez gauzatzea leporatu izan diote sarri Udal Gobernuari.

## Datuak

Orioko Udalak 2018rako 7.787.102 aurrekontua adostu zuen, eta horatik 1.064.282 euro bideratu ziren inbertsio errealetara: saneamendu obrak (Aritzaga kalea...), bide publikoak (moila), Mutiozabalen saneamendua, argitegian inber-

tsioak (S.Martin), altzariak eta lanabesak, izaera inmaterialeko gastuak, inbertsioak hondartzan...

## Zenbateraino gauzatu dira inbertsio horiek?

2016.urtean Orioko Udalak 7.786.917 milioi euroko aurrekontua zuen, eta 999.138 euro bideratu zituen inbertsio errealetara. Urte amaieran, inbertsio horien %57,67a gauzatu zen. 2017an aurrekontua 9.070.172 eurokoa izan zen, eta horietatik 1.999.906 euro bideratu ziren inbertsioetara. Urte amaieran %56,98a gauzatu zen.

Hil honetan, Orioko PSE-EEko Ana Priede zinegotziaren ardura izan da Udalaren txoko honetarako gaia proposatzea, eta bere hitzetan, aurtengo martxa kontuan hartuz, Udal Gobernuak, beste urtebetez, ez du gauzatuko aurreikusitako inber-

tsioen %100-a.

Orioko Udalak 2018ko abuztuaren emandako datuen arabera, urte garai horretarako Udal Gobernuak aurreikusitako inbertsioen %31,6a gauzatu du.

**EAJ/PNV****Legealdi honetan onartutako hiru aurrekontuen gauzatze maila altua da**

PSEk aurrekontuetako inbertsioetako atala ez dela gauzatzen jartzen du mahai gainean. Ez dugu ulertzen oso ondo zertan oinarritzen duen baieztapen hau. Legealdi honetan onartu ditugun hiru aurrekontuen gauzatze maila oso altua da, %90ekoa batez bestekoa. 2016an adibidez, %95ekoa izan zen. Beste gauza bat izan daiteke noiz gauzatzen den inbertsioa bera. Kontutan hartu behar dira hainbat aspektu obra eta inbertsioez hitz egiten dugunean. Batetik, noiz egiten den aurrekontua eta hau noiz onartzen den. Onarpen honek partidak erabili ahal izatea ahalbidetzen digu baina horretarako pleguak egin behar dira, pleguak onartu eta publikatu, obra proposamenak jaso eta baloratu, obra esleitu, eta azkenean obra egin. Batzuetan partida prest dagoenetik urtea amaitu bitartean ez dago denborarik pausu hauek guztiak emateko eta horregatik egiten dira inbertsioetan urte askotarako plangintzak.

**ORAIN****Zergatik ez dira inbertsioak gauzatzen?**

Baliabide pertsonalak (udaletxeko langileak) eta ekonomikoak (aurrekontu adostuak) egonda eta inbertsio zehatzak onartuta daudela, zergatik ez dira gauzatzen? Misterio horren erantzuna udal gobernuak dauka eta azalpena berari eskatu behar zaio. Aurrekontuek bi atal nagusi dituzte: gastu arruntak eta inbertsioak. Lehenengoek urtea joan eta urtea etorri ez dute normalean aldaketa garrantzitsurik. Aurrekontuei inbertsioek ematen diote nortasuna. Ba 2016an inbertsioetarako zegoen %58a erabili zen eta 2017an %57a. Hau da, zegoen diru-kopuruaren ia erdia ez zen erabili. Adibidea jartzearren, eta ez da bakarra, anbulatorio atea aldatzearena. Gertutasun sistema batekin irekitzen den horietakoa jartzeko herritarren eskaerak zeuden. Udal gobernu kanpoan dauden talde politikoek atea aldatzeko konpromiso zehatza sartu zuten 2018ko aurrekontuetan. Oraindik jarri gabe dago eta gure aiton-amonek eta ezinduek oraindik ate astun hori bultzatu behar izaten dute anbulatorioa sartu ahal izateko.

**EH Bildu****Ezina**

Aurrekontuetan zehaztutako inbertsio-plana urte bukaeran zenbateraino gauzatu den, horrexek erakusten du Udal gobernu baten ahalmena edo gestio-gaitasuna. Legealdi honetan oposiziotik esfortzu berezia egin dugu aurrekontuak adostasunez aurrera ateratzeko, eta udal gobernuari dagokio hartutako konpromisoak betetzea. 2016 eta 2017an, %58 eta %57koak izan ziren inbertsio-planaren gauzatze-mailak. 2018an, berriz, irailera sartzerako goazen honetan, %32 bakarrik gauzatu da. Gaitasun handiko ekipo on bat zirela esanez aurkeztu ziren EAJkoak legealdi honetan. Datu horiek ez dute horrelakorik erakusten. Lurrazpiko edukiontzien egokitzapena, irisgarritasun-plana, plan orokorra, plazako lanak... atzerapena atzerapenaren gainetik, eta aitzakiak besterik ez beren kapazitate eta koordinazio-eza justifikatzeko. Horrela ezinezkoa da konfiantzarik izatea.

**PSE-EE****Zergatik ez da inbertsioen 100%a gauzatzen?**

Udal aurrekontuetako atalik garrantzitsuenetakoa da inbertsioena. Diru partida hauek, azpiegiturak hobetzera bideratzen dira: kaleak, saneamenduak, argiteria, eraikinak... Aurrekontuak onartzen direnean, suposatzen da adostutako inbertsioak aurrera eramateko intentzioarekin egiten dela; besteak beste, inbertsio bakoitza gauzatzera bideratuko den diru kopurua adosten delako. Inbertsioak gauzatzearen ardura Udal Gobernuarena da; gure kasuan EAJ alderdiarena. Legaldi honetan, hori ez da bete. 2016an adostutako inbertsioen %57,67a gauzatu zen, eta 2017an %56,98a. Hau ez da zinegotzi sozialista baten iritzia, 2016 eta 2017 urteetako likidazio txostenetan jartzen duena baizik. Batzorde desberdinetako antolakuntza faltaren eta eguneroko lanaren kontrol ezaren ondorioz, inbertsioak ez dira aurrera eramaten, eta hitzartutako gauza garrantzitsuak hutsean geratzen dira. Hau ezin da onartu. Gauzatzen ez diren inbertsioen dirua Udaleko kutxara joaten da urte bukaeran; dirua gordetzen da, bai, baina herrian adostutako hobekuntzak ere egin gabe geratzen dira. Guzti honengatik, inbertsioak 100%ean gauzatu beharko lirateke urtero, aurrekontuetan adostutakoa aurrera eramanez.



# “Erakusketa honekin, beste zentzu bat eman nahi diogu begiratzeko moduari”



Aian dute tailerra Manuel Fernandes eta Miguel Etxeberriak artistek, eta ‘Murgilketa begiradan’ erakusketa antolatu dute elkarlanean. Orioko kultur etxeko areto nagusian ikusgai da jada irailaren 16ra arte, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00ak arte.

**Elkarlanean abiatu duzue erakusketa. Zer ikus daiteke bertan?**

**Miguel Etxeberria.** Bion lana uztar-

tzen da erakusketa honetan. Kasu honetan, nire arloa eskultura da, eta Manuelena, margolaritza. Nire sorkuntzek harriaren estereotomia dute ardatz modura, hau da, hargintzaren tratamendua. Harria lantzeko eta forma emateko hainbat modu landu ditut. Harria lantzeko modu horiek erabilgarriak dira niretzat, forma desberdinak sortzen joateko. Erakusketa honen

kasuan, harria da oinarrizko materiala, eta euskarri modura, egurra erabili dut.

**Manuel Fernandes:** Miguelek sorkuntako oinarri edo euskarrietan nire pinturak gehitu ditut; hala, bion lanak batuz, eskultura edo pieza desberdinak sortu ditugu.

**Zer dela eta ‘Murgilketa begiradan’ izenburua?**

**M.E.** Ez genuen nahi begirada soil bat izatea. Pertsona bakoitzaren begiratzeko eran murgilketa bat ematea nahi dugu, bakoitzak bere begiratzeko moduan sakontzea, alegia. Norberak bere ikuspegia du arte-lan bat begiratzeko orduan, eta hori interesgarria iruditzen zaigu.

**M.F:** Begiratzeko moduari zentzu eman nahi diogu gure lanaren bidez. Gaur egun, gure begirada mugikorretara bideratzen dugu. Pertsona askok pentsatzen dute telefonoan behar duten guztia dutela, munduaren ikuspegia aparatu horretan dagoela. Ez dira ohartzen badirela beste mila gauza begiradarekin miretsi daitezkeenak. Erakusketako lanak, lurretik jaiotzen dira, hau da, pertsonak begirada lurrian zentratu behar du, ondoren, begirada hori, obra guztia ikusteko, gorantz bideratuz.

## Kirola

### Aia-Orio triatloia irailaren 7an, haur eta helduentzat



Irailaren zazpian, ostiralarekin, V. Orio-Aia triatloia egingo da 14:30ean hasita. Nik Tri elkarteak 7 urtetik gorako haur eta helduentzat antolatu du kirol proba. Honakoak dira partaideek egingo dituzten distantziak:

\*7-8 urte: distantzia zehazteke

\*9-10 urte: 50m (igerian), 1000m (bizikletan), 250m (korrika)

\*11-12 urte: 100m, 2000m, 500m

\*13-14 urte: 150m, 3000m, 750m

\*15 urtetik gora: 200m, 4000m, 1000m

Lehiaketako programa: 13:00-14:00 artean, izen-emate berriak informazio gunean bertan, eta dortsal-banaketa; 14:00-14:30 bitartean, trantsizio-gunearen irekiera materiala uzteko; ondoren, probak, kategoria txikienetik hasita (14:30-15:30).



## Erniora igoera Ohitura zaharrei utsiz

Iraila ate joka den honetan, mendiko botak armairutik ateratzen hasiak izango dira jada zenbait, Ernioko igoerak prestatzeko. Joseba Pagadizabal aiarra, esaterako, urtero igotzen da bertara iraileko lau igandeetan.

Afizioa txikitatik ez datorkion arren, hiru urte daramatza Joseba Pagadizabalek (2000, Aia) ohitura zaharrei utsiz, iraileko igandeetan Ernio mendira igotzen. Horrez gain, abuztuaren 29an ospatzen den San Juan Txiki egunean ere joaten da bertara. Tradizio berezi hau nondik datorren oso ziur ez dakien arren, artzantzatik datorren ohitura izango denaren ustea dauka aiarrak.

Mendiko txangoaz gain, Zelatungo erromeriak ere entzutetsuak dira, eta hain zuzen ere, Pagadizabal han hasi zen lehen aldiz trikixita doinuak dantzatzen ikasten. *Neska ere han ezagutu nuen, eta harrezkero igandero ibiltzen naiz dantzan.* Lehen-go belaunaldiek ohiturari eutsi bazieten ere, gaur egun gazte gutxi ikusi ohi dituela azaldu du. *Orain tradizioari jarraitzeko ohitura handirik ez dago, baina azkenean jende asko elkartzen gara. Zaharrek, gazteak, denetik apur bat.*

### Pilota

#### Denboraldia hastear da

Orioko Pilota Elkartek datozen egunetan ekingo dio denboraldi berriari, bederatzi pilotari federaturekin. Aurten goan Usurbilgo klubetik bi etorri dira Oriora, eta horri esker, elkarteak talde bat gehiago izango du txapelketetan. Elkarteak hiru modalitatetako txapelketetan parte hartuko du:

- Eskuz binaka (Lertxundi-Aranalde)
- Gomazko paleta, emakumezkoak (Etxegia-Beldarrain)
- Gomazko paleta, gizonezkoak (Illarremendi-Esoain // I.Arruti-J.Arruti-Murua)

### Musika

#### Urteroko reggae kontzertua egingo dute gaur, abuztuak 31, Antilla hondartzan

Aurten ere, musikari oriotarrez osaturiko Safi band & hereje fighters taldeak reggae kantu ezagunak joko ditu, beste estiloetako abestiekin batera, gaueko hamar t'erdietatik aurrera. Festa arratsaldean hasiko da, iaz bezala, lagunarteko volley ball txapelketarekin. Gero, 20:30ean, afariak emateari ekingo diote, surf elkartearen lokal parean. Txapelketan parte hartzeko eta afaltzeko, Orioko Surf Taldeko lokalean jarrita dauden orrietan eman beharko da izena.

## Musika eskola

### Izen-ematea, irailaren 3tik 7ra

Danbolin Musika Eskolan ikasturte berria hastera doa. Aiar eta oriotar gazteei izena emateko gonbita luzatzen diete eskolako zuzendaritzak. Azken honek jakitera eman duenez, matrikulazio epea bost egunez egongo da zabalik, hilaren 3tik 7ra; 10:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 19:00etara, musika eskolan bertan.

Interesatuak informazio gehiago eskuratu dezakete facebook bitartez, e-postaz (danbolinme@gmail.com) edo 943 83 37 27 telefono zenbakira deituz.

Orioko Udaleko webgunean ere badago Danbolin Musika Eskolari buruzko informazio xeheagoa (www.orio.eus).





**AZOKA**

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

• Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe mugaturako izango da. Tf: 647576763

• Garaje itxia alokagai Anibarko Portuan. Tf: 649228787

• Logela alokagai Orion. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tf: 652551507a.

**Salgai**

• Duplex-a arrantzale kalean. 3 logela, 2 komun, terraza eta garaje itxia. Goiko solairura igotzeko eskailera batzuk ditu. 15 urteko etxebizitza. 395.000€

Tf: 648820190.

• Aiako aurtengo in-txaurrak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634410993.

• Salgai: Aiako babarrun beltza saltzen da, 5€ kilo. Tf: 636312231.

**Lan eskaera**

• Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544.

• Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan

egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gaztelera, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit.

Tf: 612488307

• 16-17 urteko mutil oriotar bat lan bila. Udan, umeak zaintzeko prest. Urte osoan zehar, klase partikularrak LH6-tik beherako haurrei. Tf: 600321937

• Neska bat lan bila.

Etxeko lanak, umeen zein adinekoen zaintza, garbiketa lanak.

Asteburuetan zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia duena eta erreferentziekin.

Tf: 661133295

• Neska bat lan bila. Esperientzia zabala adinekoen zaintzan eta garbiketa lanetan. Paperak behar bezala ditut.

Tf: 674123293

• Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa egiteko eta klase partikularrak emateko.

Lehen hezkuntzan

graduatu. Umeekin esperientzia handikoa.

Tf: 636312231

• Neska lan bila. Barne-zaintzailea, garbiketa lanak, eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin.

Tf: 632582365

**ITSASOA**

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	08:41 eta 21:03	02:34 eta 14:52	○
02	09:28 eta 21:58	03:20 eta 15:44	○
03	10:30 eta 23:10	04:17 eta 16:50	○
04	11:50 eta ____	05:27 eta 18:10	○
05	00:37 eta 13:16	06:47 eta 19:31	○
06	02:00 eta 14:29	09:02 eta 20:41	○
07	03:06 eta 15:29	09:04 eta 21:39	○
08	04:00 eta 16:20	09:58 eta 22:30	○
09	04:48 eta 17:07	10:46 eta 23:16	○
10	05:33 eta 17:51	11:31 eta 23:59	○
11	06:15 eta 18:34	12:14 eta ____	○
12	06:56 eta 19:15	00:41 eta 12:57	○
13	07:37 eta 19:57	01:22 eta 13:39	○
14	08:18 eta 20:40	02:04 eta 14:22	○
15	09:01 eta 21:26	02:46 eta 15:08	○
16	09:50 eta 22:23	03:33 eta 16:01	○
17	10:53 eta ____	04:28 eta 17:08	○
18	12:15 eta 23:37	05:39 eta 18:29	○
19	01:06 eta 13:37	07:00 eta 19:47	○
20	02:19 eta 14:40	09:10 eta 20:47	○
21	03:11 eta 15:26	09:02 eta 21:31	○
22	03:51 eta 16:04	09:44 eta 22:08	○
23	04:25 eta 16:38	10:20 eta 22:42	○
24	04:57 eta 17:09	10:53 eta 23:14	○
25	05:28 eta 17:40	11:26 eta 23:46	○
26	05:58 eta 18:12	11:58 eta ____	○
27	06:29 eta 18:44	00:18 eta 12:31	○
28	07:01 eta 19:18	00:52 eta 13:07	○
29	07:36 eta 19:57	01:28 eta 13:45	○
30	09:16 eta 20:42	02:08 eta 14:30	○

**ZAINTZAKO BOTIKAK**

**IRAILA:**

- Iean eta 2an, Gallo.
- 3an, Gaminde.
- 4an, Lasa.
- 5ean, Mutiozabal.
- 6ean, Gaminde.
- 7an, Gallo.
- 8an eta 9an, Iriarte.
- 9an, Esparza.
- 11etik 14ra, Lasa.
- 15ean eta 16an, Zulaika.
- 17an, Mutiozabal.
- 18an, Etxeberria.
- 19an, Esparza.
- 20an, Lasa.
- 21ean, Zulaika.
- 22an eta 23an, Izpizua.
- 24an, Etxeberria.
- 25ean, Gallo.
- 26an, Izpizua.
- 27an, Zulaika.
- 28an, Lasa.
- 29an eta 30ean, Esparza.

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



## Orio

### Musika

- Irailaren 3tik 7ra, Danbolin Musika Eskolan izen-ematea. Goizez, 10:00etatik 14:00etara; arratsalde, 15:00 eta 19:00 bitartean.

- Irailaren 10ean, Danbolin Musika Eskolako ikasturte berriaren hasiera.

### Kirola

- Irailaren 2an eta 9an, Donostiako Estropadak 'Kontxako Bandera'.
- Irailaren 8an, I. Esku Pilota Txapelketa Azkarra.

### Erakusketak

- 'Murgilketa Begiradan' erakusketa kultur etxean, irailaren 16ra arte.

### Gaztetxea

- Irailaren 29an, Gazte Festa.

### Kultur Etxea

- Udazken ordutegia: goizez, 09:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.
- Noiz, zer izango da, zein ordutan, non
- Noiz, zer izango da, zein ordutan, non

## Aia

### Kirola

- Iraileko asteburuetan, Erniora, igoera.
- Irailaren 7an, Aia-Orio triatloia, haur eta helduentzat.

### Aisia

- Gaztelekuaren eta ludotekaren irekiera, iraila amaieran (data zehazteke).

### Iturraran Parketxea

- Goi denboraldiko ordutegia irailaren zehar: astartetik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era. Larunbat, igande, jai-egun eta zubietan, 10:00etatik 14:00etara.

### Jaiak

- Irailaren 29an eta 30ean, Sanmigel jaiak Laurgainen.

### Kultur Etxea

- Irailaren 14tik aurrerako ordutegia: 09:00etatik 12:30ra; arratsalde, 15:30 eta 19:15 bitartean, astelehenetik ostiralera.

### Bilerak

- Irailean zehar, Xatur Gaztelekuko erabiltzaileak elkartuko dira, urteko plangintza egiteko. Bilera horiek irekiak izango dira bertako erabiltzaileentzat (12 eta 18 urte bitartekoak).



**KARELA KIROLDEGIA**  
IKASTAROAK 2018-19  
IRAILAREN 03TIK AURRERA

GURE SAIO BERRIAK: TRX eta Pilates Rehabilitazioa.  
**Animatu zaitetz eta zatoz gurekin ondo pasatzera!!**

**KARELA** Erriberak 1, 20810 Orio · 943 894 428 · orio@bpxport.es

**ROSANA**

-ARGAZKI ESTUDIOA-  
fotorosanaarruti@gmail.com  
telf; 943 83 58 45







ZAUDEN  
LEKUAN ZAUDELA

